

GEROKO GERO



ILTZERA DOANA

Eriotzeko oreneraiño bekatutan egon gogo duenaz

Erraiten du Senekak: *Moriantur ante te vitia*: (1) Il bitezi zu baiño leen zure faltak eta bekatuak: ek leenik, zu gero. Eztitzatzula eriotzeraiño zeurekin eduki. Zeren artaraz gero, periletan iar zindezke, zerori ilagatik, ek bizirik geldi litezin. Zaartzeraíño bekatutan dabailana ezta peril gabe; zer izanen da bada ere aitzinago, eriotzeko oreneraiño, beti barrenago sartzen dela, beti ala dabillanaz, eta ibilli gogo duenaz?

Eznuke erran nai zein peril andiak diren eriotzeko oren artan: zeren ezpaneraukayo neori, izitzeko eta esperantzaren galtzeko, okasiorik eman nai. Ordea ezin nagoke erran ere gabe, zeren orduko esperantzak anitz galtzen baitu. Eta baitakusat ezen, nik orai, emen eman aal dezakedan izialdurak eta beldurtasunak baiño, orduko perilaren berririk iakin gabeak kalte geiago egin dezakeyela.

Baiña egiteko unetan sartu baiño leen, nai nuke iakin zenezan gauza bat, eta da: nola egiazko penitentzia baita lainkoaren donua, doaina, eta emaitza, lainkoak berak plazer duenean eman dezakeyena: ala egiazko penitentzia ura, noiz nai, eriotzeko azken orenean bada ere, salbatzeko asko sendo eta boteretsu dela. Eta a'atan salbatu zen ooiña bere azken orenean, anarteraiño bekatutan egona eta ibilia. Oraiño bidezkoak gara, eta unela gareíño iragan gaitezke aitzinat, eta bai gibelat ere biur, badaidikegu ongi, eta bai gaizki ere; zeren bo-

(1) Senec. Ep. 27.

rondatea libre eta geure eskuko baitugu. Alatan erraiten du San Agustinek: *De nullo deseperandum est, quandiu patientia Dei ad poenitentiam adducit, nek de hac vita rapit impium*: (1) Ezta neortzaz ere etsitu bear, ezta neor ere galdutzat eduki bear Iankoaren pazienziak penitentzia egitera igurikitzen dioeño, mundu onetan utzten dueño. Alaber erraiten du San Agustinek berak: *Poenitentia aboleri peccata indubitanter credimus, etiam si in ultimo vice spiritu admissorum poeniteat*: (2) Segur dadukagu, duda gabe sinesten dugu, azken atsaren aurkititzean ere, penitentziak barkatzen dituela bekatuak. Eta Iainkoak berak errana da Ezekiel Profeta baitan: *Impietas impii non nocebit ei, in quacumque die conversus fuerit ab impietate sua*: (3) Eztio bekatoreari, bekatutik ilkitzen den egunetik arat, bere bekatuak kalterik egingen. Konberti bedi, onera biur bedi, naiz dela arimak egiterakoan, biz ats baktotchean dagonean, eta orduan ere entzuna izanen da. Biziak diraeño, atsa sabelean deiño, arima gorputzetik ilki arteño, baldin oraiño adimendua on badu, memorian eta akorduan badago, naasten espada, baduke bere bekatuaz bear den urrikimendua, damua eta dolorea. Eta anbatenarekin eztu bitartean, zer etsiturik, eztu zer esperantza galdurik, zeren ezpaita oraiño orduan erremediotik kanpoan.

Bekatuaz barkamendu ardiesteko, egin bear da penitentzia; eta penitentzia egiteko asko da puntu bat, buru-itzulze bat, begi erts-ideki baten bitartea. Zeren egiazko penitentzia, eta bertzerik ezin daidikeyena, salbatzeko asko dena, biotzeko urrikimendua, da, falta eginez barrenean. Iainkoagatik, damu eta dolu izaitea.

Erraiten danean egin bear dela penitentzia, eta bertzela ezin salba ditekeyela, ezta ez aditzen, bada eta ezpada bear dela kofesatu, barkamendu eskatu, barurtu, orazinotan egon, erromerian ibili, eta unelako bertze obra penatuetan penatu. Zeren egia da, gauza auk guztiok penitentziak dira, eta penitentziatzko obrak: ordea dira kanpokoak, eta egin aal ditezkeyenean, zenbait bedere egin bear direnak. Baiña baldin ezin egin baditezke, ezin kofesa badadi, ez mintza, eta ez deutsetan ere manaia, asko da orduan barren ona, borondatea, biotzezko damua, dolua eta dolorea: zein baita egiazko penitentzia; eta kasu artan, bertzerik ezin daidikeyenean, salbatzeko asko dena.

(1) Aug. Sermon. 11. De Verbis Domini.

(2) Aug. De Ecclesiæ, dogmatibus, cap. 80, tom. III.

(3) Ezec. 13.

Erremedio aur dute itsasoan edo andik kanpoan kofesatu gabe iltzen direnek; barreneko penitentzia, biotzezko damua eta dolorea, kontriziona. Eztute bertzerik, baiña aur dute asko, baldin bear den bidean ikaiten badute. Eta barreneko penitentzia aur, biotzezko damu eta dolore aur (zein latinez deitzen baita *contritio*, á *verbo contero*, erran nai baitu, cheatzea, zatitzea, porraskatzea; zeren bekatuz gogortu zen biotza damuaz, doloreaz eta urrikiar, cheatzen, beratzen eta zatitzen baita); baduke neork laburzki, denbora gutiz, puntu batez. Zeren San Basiliok dioen bezala: *Non enim temporis quantitate, sed animi proposito pœnitentia judicatur.* (1) Penitenziaren indarra eta balioa, borondatearen deliberamenduan dago, eta ez denboraren luzetasunean. Ala dio San Agustinek ere: *In actiones autem pœnitentiæ, non tam consideranda est mensura temporis quam doloris:* (2) Penitentzia egitean, ezta ain konsideratu bear denboraren neurria, nola dolorearena. Urrikimendu egiazkoak, biotzez conbertitzeak, dolore finak eta beroak, geiago daidike denbora gutiz, dolore lachoak eta otzak anitzez baiño. Dolorea bear da neurtu eta konsideratu, eta ez denbora; aur beror emaiten du oraino aditzera San Agustinek, erraiten duenean: *Pœnitentia vero non annorum numero censetur sed amaritudine animi:* (3) Penitentzia ezta ez urteen kontuaz egiazko eta balios egiten, baiña bai biotzaren barreneko doloreaz, urrikiar eta atsekabeaz.

Nola bekatuaren arimatik kentzeko, eta ateratzeko, bi gauza bear baitira: (4) bata Iainkoaren aldetik, aren garazia eta favorea, eta bertzea guretik, gure naia eta borondatea: eta gauza auk gustiok, are gure aldetik bear direnak ere, prinzipalki Iainkoak egiten baititu; alatan Iainkoak bere garaziaren emaita, eta gure garazia aren errezibitzeko, eta arekin batean bekatuaren kentzeko, prestatzera ere, egin ditezke laburzki, eriotzeko azken artikuluan. Zeren bekatuaren egiteko asko da puntu bat, gogoaren egotzte bat, borondatearen deliberatze bat, eta konsentitze bat: asko izanen da beraz alaber bekatu aren beraien erremediatzeko ere, puntu bat, gogoaren bertze aldera itzultze bat, borondateak zinki eta finki Iainkoagatik,, bekatuaren utzte bat eta gaitzeste bat. Zeren aren miserikordiosago da Iainkoa justiziati baiño,

(1) Basil. orat. 4. De pœnit.

(2) August. in Enchyrid. cap. 6.

(3) Aug. serm. 67. De temp.

(4) Vide S. Tom. 1, 2. q. 113, art. 7, in corp.

bukatzera pretago gaztigatzera baiño. Beraz unelatan eriotzeko pontuan ere, azken orenean ere, egin diteke lainkoaren faborearekin batean, egiazko penitentzia, eta erdiets bekatuen barkamendua. Aur da egia, eta egia unetan ezta dudarik.

§ 1

Bai orden bada duda, eta duda ere andia, ea azken oren artan egiazko penitentiariak, bear den urrikimendurik izanen duenz bekato-reak. Aitortzen deratzut, bedaitekela orduan ere: orden pontua da, ea izanen duen. Eta ezta munduan, eriotzeko oreneraiño bekatutan dagoenaren salbamenduaz duda eztuenik, seguratzarik emaiten duenik. Aitzitik Eskritura saindua, eta Elizako doctor guztiak ain erstuki eta izigarriki mintzo dira orduko penitenziaz, non baitirudi eze azken erranen arauaz, artaraz gero eztela batere salbatzen.

Erraiten du San Mateo Evangelistak: *Orate ut non fiat fuga vestra in hyeme vel sabbato*: (1) Egizue otoiz, eztadilla zuen iesa gerta neguan edo larunbatean, zein baitzen orduan besta. Zeren nola negua baita linburi, leun, istilsu eta loitsu, ezta bidean ibiltzeko on. Eta besta egunean ere debeku zen, etzen sori eta ez zilegi bide luzerik iragaitea, urrun joaitea. Bada eriotzeko oreña da negu eta besta. Negu, zeren guztia baita trabuz, travailluz eta egitekoz betea; besta zeren orduan bear baita pausatu, eta astelegunerako travailluez; añarteraiño-ko obra enez gozatu. Beraz unelatan leen bear da etsai gaistoaren eskuetarik ies egin, eta ez anarteraiño egon eta lozatu.

Arropa berriak bazkokotzat eragin nai dituenak, aitzinetik bear du prestatzen asi, aitzinetik bear du oiala ekarri, neurria artu eta jostera eman. Erokeria andia lizate goiz bezperaiño, dendaria deitu gabe eta bertze gauzak chuchendu gabe egoitea. Bada are da erokeria andiagoa eriotzeko oreneraiño arimaren beztitzeaz konturik ez egitea, eta uste izaitea ezen erstura artan, ain denbora laburrean prestatuko, eta apainduko dela. Alatan Alexandro andiak egori zuen soldadu bat bere konpainiatik, zeren etsaiarekin batzerakoan, gudu emaiterakoan asi baitzen armen garbitzen eta prestatzen.

Denbora ertsia eta egitekotsua da eriotzeko denbora: gaitz da orduan egiazko penitentiaren egitea eta izaitea, guztiz ere leen debozi-

(1) Mat. 14.

noan usatu eztenarentzat, edo anarteraño beti gaisto izatu denarentzat.

Eta nola den gaitz, anitz arazoinenez frogatzen ahal dute. Leenbizikoa: orduan munduko egitekoek, zorartzekoek, artu-emanek, seme alabek, seiek, ondokoek, eta guztien gaitzetik eritasunak erak, orduko oinaze min ek, trabu andia ibeniko deratzute, naasiko, desmordituko; zeri lot eztaizula, zeure buruaz eta eginbideaz aantzirik, ibeniko zaituzte.

Sukar andi batekin, saietseko punta batekin, edo bertze eritasun bortitz batekin dolorez zarenean, dolore ark berak, are eskapatzen zarenean ere emaiten deratzu egitekorik asko, ezteratzu bertzetan pentsatzeko ere astirik utzten. Zer izanen da bada, dolore guztien gaitheko doloreak, arimaren gorputzetik ateratzeko asko denak, eriotzekoak ar zaitzanean? Zer balentia egin uste dozu zuk orduan? Egiazko penitentzia, zein baita andia, egitekotzua, eta osasuna duenari ere lanik eta ekairik asko emaiten dioena, nai duzu zuk, den denborarik erstueneko, gaitzeneko, eri zareneko, eta are eriotzearen azken oreneko luzatu? Orretan emaiten duzu aditzera, eztuzula neoiz ere penitentiari egin nai, Zeren osasunarekin zaudenean, aala duzunean, ezpaituzu egiten.

Ala erraiten du doctor batek: *Si non facis dum potes, manifeste ostendis, quod non vis*: (1) Aala duzunean ezpaduzu egiten, erakusten duzu eztuzula egin nai. Argatik erraiten du San Agustinek ere: *Festinare debet ad Deum convertendo dum potest unusquisque, ne si dum potest noluerit, omnino cum voluerit non possit*: (2) Bat bederak bear du konbertitu egin laster lainkoagana aala duenean. Zeren aala duenean naia eztuenak, benturaz gero, naia duenean, eztu aala izanen: beintzat jartzen bedere bada ez izaiteko perilean. Beraz unelatan leen bear da prestatu. Zeren gaitz izanen da, eriotzeko orenean, eritasunez eta oinazez kargatua zaudenean penitentzia egitea, bear den fintasunarekin eta berotasunarekin lainkoari gomendatzea. Zeren orduan, bertzeak bertze direla, eritasunak berak, emanen baiteratzen egitekorik asko?

AXULAR, *Sarako Erretorak*

(Aurrandetuko da)



(1) Hugo de sacram. p. 4. c. 5.

(2) August. ser. 17, ad fratres in eremo.

GEROKO GERO



(AURRENDEA)

§ II

Are gelago, gaitz izanen da eriotzeko orenean, bear den bidean, penitenzia egiten. Zeren penitenziak, eta edo zein bertze obra on batek ere, egiazko, eta balios izaitekotz, bear du, gogotik, amorioz, borondate onez eta libreki egina izan; eta ez bortchaz, ez ezin bertzez, edo beldurrez. Eta azken oreneko penitenzia ark, badirudi, bortchazkoa, ezin bertzeskoa, edo beldurrezkoa dela, eta ez bear bezalakoa, eta ez bear bezain librea eta borondatezkoa.

Alatan erraiten du San Agustinek: *Pœnitentia quæ ab infirmo petitur, infirma est, pœnitentia quæ á moriente tantum petitur, timeo ne ipsa moriatur* (1): Eriaren penitenzia, penitenzia eria da; beldur naiz il dadin, ilzerakoan baizen egiten eztena. Leen bear da leen egin.

Zeren Profeta Dabitek zionen bezala: *Quoniam non est in morte qui memor sit tui* (2): Ezta neor eriotzean lainkoaz oroitzen. Ordea zer erran nai du mintzatze molde unek, eztela neor eriotzean lainkoaz oroitzen? Zeren zu orduko esperanzak bizi zaitu: eta esperantza arekin eztuzu anarteraifnokoan gaistakeriarik baizen egiten: etzare epe artaraifno lainkoaz nai oroit. Baiña orduan diren gaistoena ere asten dira, bere kontzienzien iratitzen, eta iraultzen, batari eta bertzeari

(1) August. serm. 57. De tem.

(2) Psal. 6.

barkamendu eskatzen, eta bertze egiteko guztiak utzirik, aalez lainkoa bera baitan, pensatzen.

Nolatan aal dateke beraz egia, errege Dabitek dioena, eztela neor eriotzean lainkoaz oroitzen? Ezta gaitz iardesten; zeren bataz, leen erran den bezala, orduan, eritasunak berak, bere gorputzeko gaitzak, emaiten baitio bat bederari egitekorik asko; eta berriz bertzea, zeren peril baita, orduko oroitzea, oroitzen bada ere, ez oroitzea bezala, bel-durrezkoa edo bortchazkoa izanen den, eta ez bear bezalakoa. Zeren San Agustinek dioen bezala: *Quia etiam hac animadversione percutitur peccator, ut moriens obliviscatur sui qui dum viveret oblitus est Dei* (1): Bizi deiño lainkoa aantzirik egon denak, merezi du, berari ere iltzerokoan aantz dakion bere burua, eta oroitzen bada ere, oroitze ura eztakion deus balia. Eta iduri ere badu etzaikala deus baliatzen, zeren komunzki alakoa, eritasunetik eskapatzen denean leeneko bekatueta biurtzen oi da.

Alakoaz eta alakoez mintzo dela, erraiten du Errege Dabitek: *In multitudine virtutis tuæ mentientur tibi inimici tui* (2): Zeure bertutearen multzutasunean, gezur eginen deratzute zeure etsaiek. Zer erran nai du mintzatze molde unek? konparazino batez edo biaz adituko duzue. Bi aitonen Semek, edo zaldunek elkaren artean etsaigoa dutenean, eta elkar dichidaturik, desafiaturik, konbatera eta gudara deiturik, kolpeka asten direnean, komunzki sendoenak edo antzasuenak garaitzen du bertzea, bere meneratzen du, azpiratzen du, lurrera egozten du, ezpataz iragaitera darama. Orduan lurrean datzanak, erstura andian baitago, erraiten dio bere etsaiari: ¡a! iauna otoi barka iazadazu, bizia indazu. Ezagutzen dut orainokoan, zure alderakotzat, faltatu dudala, gaizki egin dudala, baiña prometatzen deratzut ezen emendik aitzina zure serbitzari izanen naizela. Unela mintzatzen zaika, unela otoitz egiten dio. Eta otoitz auk gogoan arturik, biotza autsten zaika, urrikaltzen zaika, barkatzen dio utzten du iaikitza. Ordea iaiki den bezain fite bera eman duen promesaz, eta egin zaikan garaziaz kontu guti eginik, bere leeneko tornura eta etsaigoara biurtzen da. Alakoari bere etsaiaren indarrak, botereak, eta garaitiak gezurra erran arazi derauka eta prometa arazi conplitzen eztuena. *In multitudine virtutis tuæ mentientur tibi inimici tui*.

(1) Augus. Serm. 10. De sanctis.

(2) Psal. 65.

Ala eriek ere bere eritasunetan, eta marinela tormentatuek bere tormentetan, anitz promes eder egiten dute, saindutzeko gogo artzen dute, debozino bat erakusten dute. Ordea nola ura guztia beldurrez egiten baitute, eritasuna eta tormenta iragan direnean, iragan dateke eken debozinoa, eta ere andik arat leen bezain gaisto, edo gaistoago egiten dira. Alakoei eritasunaren eta tormentaren indarrak gezurra erran arazi deraue, eta prometa arazi konplitzen eztutena.

Garzelean dagoenak egiten duen ordenuak eta testamentak eztuela deus balio, dio lege zaarrak. Ez eta beraz eztu deus balioko, eritasunaren eta eriotzearen garzelean eta ersturan dagoenak egiten duen promesak eta penitenziak ere. Zeren ek guztiek dirudite direla borchaz eginak, eta ez amorioz, eta ez borondatez.

AXULAR, *Sarako Erretorak.*

(Aurrandetuko du)

La Oración del Huerto



Mirad, mirad su estertor,
Mirad esconder su frente
En las manos dulcemente
Para sufrir su dolor.
Allí gime el ruiseñor
Al morir tranquilo el día
Con fúnebre melodía...
Y entristecida la luz
Pinta cercana la cruz
Donde Jesús moriría...

¡El huerto! Débil acento
En el ambiente resuena,
Es una noche serena
De triste recogimiento.
Allí un Dios su pensamiento
Eleva á la inmensa altura...
Donde está nuestra ventura,
Y es tan grande su dolor,
Que el espacio al redor
Su triste oración murmura...